

# ENPERADORE MUTIRIARENAK

Anjel LERTXUNDI

Enperadoreak, mutiri izanagatik ere, maite zituen ipuinak eta testu zaharrak. Braganikoetan idazten zizkioten erresumako zaharrenegogoratzen zituztenak, braganikoetan idazten zituen enperadore mutiriak amoraldiko gau luzeetan birjina ohiei entzundakoak.

Pergamu haietatik ez ditu guztiak sitsak jan, hezetasunak erre, eguzkiak haustu. Denbora iraganen dardarizoa bere dute kontserbatzen diren urriek.

Haietako batzu hemen eskaini ahal izateko ditxa dugu, primizia eta haskin gureztat, baina ez haren gau gozoetako geziaren aiena nahiz goizalbako ezpataren zorrotza ezagutu zutenentzat.

Oraingora egokituak, hobe du testu hauen benekotasunari buruz “credam quam probavero” jarrera dagerrenak aurrera ez jarraitzea.

## 1.- ATEA NORI IREKI JAKITEKO

Enperadore mutiriak harro kontaktzen zuen bere erresumako etxeetan ate joka ibiltzea gustatzen zitzaiola. Atea irekitzen ziona neska begi distiranta bazuen, ate ireki berritik neskaren begietan gerezi bildu berriak ikusten bazituen, berearekin eramaten zituen jauregira neska begi distirantaren gerezi jaso berriak.

Enperadore mutiriak laborriz kontaktzen zuen bere erresumako ate tzarreen jo zuela behin auzoko enperadore mutiriak ere, zabaldu ziola atea eta han ez zitzaiola neska begi distirantik, gerezi eskura berririk ikusi.

Enperadore mutiriak erabakior jarraitu zuen kontaktzen gerra egin nahi izan ziola auzoko enperadore mutiri hari, baina uko egin eta matxinatu egin omen zitzaizkion erresumako meneko errebelde urde traidoreak.

Enperadore mutiriak haserre kontaktzen zuen ez zuela ulertzen bere meneko matxinatu haien jarrera eta horrek eraman omen zuela auzoko enperadore mutiriari deitzera bere meneko matxinatu haien aurka lagun ziezaion.

Honela zuritu omen zuen bere burua enperadore mutiriak:

— Ulertzekoa izango ez da, bada, egin dudana, Jainko errukitsuak ere deabruarekin elkartu behar izaten duenean bere erresumako matxinatuak infernua izan dezaten?

## 2.- BURUA LEPO GAINEAN NAHI BAZENU, KON TUZ KONFIDENTZIEKIN

Gauza asko gutiziatzen zuen enperadore mutiriak, ganora gutxiko gauza gehiegi gerra luzeetara behartutako jenerale akituen ustetan. Erresumako apaiz nagusia izan zen enperadore mutiriari desiorik maiteena ezagutu zion estraineko gizona:

— Meneko guztien artean buru bakar batez konpon daitezela hemendik aurrera, izan dezatela denek borondate bat, izan guztiek desio eta hitz bakarra.

— Zertarako, enperadore kuraiatsu?

— Bururik makurtzen didaten hobeto ikus dezadan. Eta burua tente mantentzearen oilarkeriaz baletoz, aisago litzaidake buru bakar bat moztea.

Eta gero, bere bizar luzea ferekatuz, enperadore mutiriak erresumako apaiz nagusiari:

— Lortuko al zenit horrelakorik?

— Enperadore amultsu, meneko bat nauzu neu ere.

Kexuaren tonua nabarmena zen eta are nabarmenagoa apaiz nagusiak ez ziola bururik makurtu.

Gauza asko gutiziatzen zuen enperadore mutiriak, ganora gutxiko gauza gehiegi gerra luzeetara behartutako jenerale akituen ustetan. Lehen ministraria izan zen enperadore mutiriari desiorik maiteena ezagutu zion bigarren gizona...

## 3.- ZORION BILA DABILENARI

Enperadore mutiria ez zen bere menkoak baino gutxiago izango eta hark ere zorion bila botatzen zituen ordu gehienak, neke astunenak, ohartzeko ordu ugari eta neke astunak eskatzen dituen zoriona ezin izan daitekeela nahi genukeenaren antzekoa.

Alabak galdetu zion behin, hamalau urterekin neska guztiek izaten duten maliziaz, hamalau urteko neska guztiek malizia izkutatzeke baliatzen duten freskotasunaz:

— Aita, eta zer egin behar duzu zorionik ez dagoela jakiten duzunean?

## 4.- TONTO IZATETIK LIBRATZEKO ARTEAN AUKE- RA DUTENEI

Enperadore mutiriari jeneralaren bat hasten zitzaionean esanaz erresuma asaldatzen hasia zitzaiola, eta erregutuz menekoen eskabideei jaramon egin behar ziola, poeta hebreotarraren poema hura errezitatzen zuen, grandielokuentziaz eta algara bizian, biak elkarrekin joan daitezkeen neurrian:

Norbait ari zait atean joka, urjentzia osoz.

Ez nago, bihar bueltatuko naiz.

Deika berriro.

Ez nago erresuman, bueltatuko naiz noizbait.

Deika eta deika.

Ez nago, ez nago, egunak amaitzen direnean bueltatuko naiz.

Tonto arraneak, ez diat-eta sekula bueltatzeko asmorik!

## 5.-

Gau batez erresinularen ahotseko neska bat eraman zuen enperadore mutiriak jauregiko logela nagusira.

Enperadore mutiriak erregutu zion behatzak neskaren ilaje horian trentzaturik:

— Ba al dakizu ipuinik?

Erresinula hasi zen kantari:

“Haize hegoa printzesa baten arima da. Printzesa hark, Espainiako erregerekin ezkontzeko, Baxenabarre eraman zuen Espainiara dote-gisa. Gero Frantziak Espainiari gerra batean irabazi zion”.

Enperadore mutiriak iharduna ebaki zion, haserre:

— Eta zer ikusteko daukat nik horretan?

Erresinula kantuari jarraitu zitzaion:

“Printzesa hura ezta kontent eta maiz yiten da bere do-tearen erreklamaterat, haize hegoaren irudia hartuz”.

Enperadore mutiriak dei egin zien borroeroei erresinularen ilaje horiak edertzen zuen buru argia bandeja batean ekar ziezaioten.

Baina borroero nagusiak ez zuen gelan enperadore mutiria besterik ikusi.

Hala esan zien borroerokideei ahopeka, enperadore mutiriak entzun ez ziezaion:

— Seko trastornatu zioz burua hego haizeak.